



DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

2024

HEZKUNTZA SAILA



2024KO HEZKUNTZA SAILAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (DPE)

SARRERA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da dirulaguntzen plan estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen dirulaguntzei dagokienez, dirulaguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, dirulaguntza horiek emateko beharrezko epea, aurreikusten diren kostuak, eta haien finantzaketa- iturria, eta beti aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoa betetzeko, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2015eko irailaren 18ko 01/15 Zirkularrarekin bat etorriz, Hezkuntza Sailaren 2024rako dirulaguntzen plan estrategikoa onartu behar da. Plan hau sailaren politika planifikatzeko tresna da, eta berehelburua da erabilera publikoa edo gizarte-interesa duen jarduera bat sustatu edo xede publiko bat lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzen bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 10. artikulua arabera, Hezkuntza Sailari honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie:

- “Irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren eskumenak, bai erregimen orokorrekoak eta bai erregimen berezikoak ere, etapa eta maila guztiak barne sartuz; eta goi mailako hezkuntza eta bai bizitzan zehar kualifikazioak eskuratu edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak ere,*
- Lanbide-heziketaren arloko zuzendaritza-, antolamendu- eta plangintza-eginkizunak betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta nekazaritza- eta nautika- eta arrantza-arloko enplegurako lanbide-heziketaren eta arautu gabeko lanbide-heziketaren arloan eskumena duten sailen eta erakundeen laguntzarekin.*
- Zientzia-politika; ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatu eta koordinatzea,*
- Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera,*
- Legeek eta erregelamenduek eman diezazkieten gainerako ahalmenak”*

Bestalde, kontuan izan behar da Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren arabera, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak eta 4 Sailburuordetzak osatzen dutela Saila, eta horien mende 11 zuzendaritza daude.

Plan honetan Hezkuntza Saileko zuzendaritzek kudeatutako deialdiak bakarrik sartzen dira; izan ere, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak, Musikene Fundazioak eta Haurreskolak Partzuergoak (Sailari atxikitako sektore publikoko erakundeak) ez dute inolako dirulaguntzarik izapidetzen.

Ohartarazi behar da, nolanahi ere, planak izaera programatikoa duela, eta, beraz, haren edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna dirulaguntzen lerroak praktikan jartzearen mende geratzen dela, besteak beste, kasu bakoitzeko aurrekontu-baliabideen arabera.

Guztira, Hezkuntza Sailak 148 dirulaguntza lerro ditu gaur egun. Azpimarratu behar da, kasu gehienetan, aurrekontu-konpromisoak aurrekontu-ekitaldi bakarrekoak baino handiagoak direla. Azkenik, jarraian zehazten den laburpen-taulan, Hezkuntza Sailaren DPE egiteko jarraitu den egitura azaltzen da.



KABINETE ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA

ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
			EHIGereentzako dirulaguntza, Euskal Eskola Publikoaren jaia finantzatzeko	50.000			

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDETZA

ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARITZA	4231	Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikasleei hezkuntzarako sarbidea ahalbidetzea, baldintza ekonomikoak oztopo ez diren beka-eta laguntza-sistema baten bidez	Unibertsitateaz kanpoko ikasleentzako eskolatze-beka eta laguntzen deialdia	22.800.000	39.500.000		
	4231	Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikasleen eskola-garraioa bermatzea	Eskola-garraiorako banakako dirulaguntzen deialdia, Haur Hezkuntzako lehen zikloko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako hirugarren mailako ikasleentzat	2.000.000	2.000.000		
	4221	Enpleguari eustea eta itunpeko ikastetxeetako irakasle-plantillak gaztetzea, hurrengo urteetan beharakada demografikoa aurreikusten baita	Itunpeko ikastetxe pribatuentzako laguntzen deialdia, enpleguari eusteko eta irakaskuntzako plantillak gaztetzeko akordioen esparruan, datozen urteetan demografia-jaisiera aurreikus daitekeelako	3.372.356	2.398.309	2.398.309	799.436
	4222			1.126.901	1.126.901	1.126.901	430.466
	4221 4222	Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza pribatu arautuan liberatu sindikalen kostua finantzatzea	Zuzeneko dirulaguntza EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeei eta ikastolei	1.205.900			
	4221 4222	Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-konplexutasun bereziko itunpeko ikastetxeei finantzatzea	Zuzeneko dirulaguntza EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeei eta ikastolei	3.016.262			
AZPIEGITUREN, BALIABIDEEN ETA TEKNOLOGIA ZUZENDARITZA	4211	Sailaren inbertsio-plana definitzen laguntzea, giza baliabideekin eta baliabide teknikoekin	Udalaguntza	10.000.000	10.500.000	10.500.000	10.500.000
	4222		Udal-jabetzako higiezinetan jolas-eremuak sortzeko edo hobetzeko obrak egiteko gastuak finantzatzea	3.000.000	3.000.000	3.000.000	15.000.000



HEZKUNTZA SAILBURUORDETZA

ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
IKASKUNTZA ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZA ZUZENDARITZA	4226	Hezkuntza-berrikuntza bultzatzea	ELEANIZTASUNERANTZ: proiektu eleanitzak itunpeko ikastetxeetan	444.000	888.000		
	4225	Erakundeen partaidetzarako eta elkarlanerako bideak	Dirulaguntza izenduna UPV/EHuko Udako Ikastaroen Fundazioari	40.000			
	4225	EAEn Europako herrien, nazionalitateen eta eskualdeen arteko harremanak bultzatzea eta sakontzea, europar nortasuna sustatuz eta euskal gizartea Europa eraikitzeko egiten diren aurrerapenei buruz sentsibilizatuz	Dirulaguntza izenduna Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluari, Francisco Javier de Landaburu sarien finantzaketan laguntzeko	10.000			
	4231	Bigarren Hezkuntzako ikasleen hizkuntza-prestakuntza ahalbidetzea, atzerriko egonaldi eta ikastaroetarako beken politika baten bidez	Atzerriko hizkuntzak ikasteko bekak bigarren mailako ikasleentzat	1.100.000			
	4231	Gizarte-desberdintasunak arintzea, herritarrek irakaskuntzarako eta ezagutzarako ahalik eta sarbide handiena izan dezaten, errendimendu eta aprobetxamendu akademikoa hobetzerako eta bikaintasuna bultzatzera bideratuta dago	Dirulaguntza izenduna BBK Urdaibai zentroari	149.000			
	4715	Euskarazko material didaktikoa egiteko pizgarriak	EIMA programa: EIMA 1, EIMA 2.0 eta EIMA 4	397.000	588.000		
	4715	Irakasleak euskaraz prestatzea	IRALE programa: Ikastetxe pribatuak irakasleen ordezkariak finantzatzeko	1.433.000			
	4715	Itunpeko ikastetxeetan euskararen normalkuntza eta kulturako hizkuntza-proiektuak ezartzea	Ikastetxetako jardueren deialdia	1.415.000	980.000		
	4715	Eskola-giroa euskalduntzea	Dirulaguntza izenduna Kultur eta Gizarte Bidaia SL-ri	6.400	30.000		
	4715	Ikastetxeetan euskararen erabilera aztertzea	Dirulaguntza izenduna Sociolinguistika Klusterrari	60.000	80.000		
	4715	EAEko ikasleen artean irakurzaletasuna indartzea	Dirulaguntza izenduna Euskal Idazleen Elkarteari	40.000	68.000		
	4715	ZTBP Euskadi 2030aren oinarritzko lerro estrategikoak hedatzea	STEAM: sustapen eta bokazio zientifiko-teknikoak itunpeko ikastetxeetan	280.000	70.000		
	4225	Pentsamendu kritikoa, hausnarketa eta pentsamendu filosofikoa sustatzea, bigarren hezkuntzako ikasleen trebetasun kognitiboak eta sozialak garatzeko funtsezko tresna gisa	Dirulaguntza izenduna Agora Elkarte Filosofikoari	10.000			
	4225	Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea	Dirulaguntza izenduna Hik Hasi Euskal Hezkuntzarako Elkarteari	37.000			
	4225	Euskal gizartearen erronka nagusiei buruzko hausnarketa sustatzea, lankidetzan hezkuntza-lehentasunak identifikatzea eta etorkizuneko eszenatoki desiragarriak definitzea	Dirulaguntza izenduna Eusko Ikaskuntzari	40.000			
	4231	Hezkuntza sustatzea eta zabaltzea	Dirulaguntza Unesco-Etxeari	36.000			
	4225	ESKOLA 4.0 (Eskola Adimentsua): Pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa bultzatzea	Itunpeko sareko ikastetxeentzako eta estatutu-harremanak dituzten elkarte eta federazioentzako dirulaguntzen deialdia, "Eskola Adimentsua" programa garatzeko (4. eta 7. kapituluak)	1.367.175	2.067.175		
				932.825	932.825		



HEZKUNTZA SAILBURUORDETZA

ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA	4224	Bokazio zientifikoak eta bokazio artistikoak sustatzea	Udal titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastetxeentzako laguntzen deialdia	13.700.000			
			Titulartasun pribatuko musika-ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia (udalen finantzaketarekin, eta udalen finantzaketarik gabe)	2.728.810			
			Dirulaguntza izenduna Arte Plastiko eta Diseinuko "ARGI ARTE" Zentroari	36.552			
			Dirulaguntza izenduna "José Uruñuela" -ri	250.000			
			Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteari (EHME)	58.110			
			Musikaldia 2024	26.000			
	4221	Ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta sare publikoan hezkuntza-etapa horiekin bat datozen ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko	Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleen eskolatzea	3.500.000			
	4221	Titulartasun pribatuko 0-3 urteko haur-eskolak finantzatzea	Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleen eskolatzea	17.525.126			
	4231	Gurasoen lankidetzaren eskola-sisteman sustatzea eta bultzatzea, dagozkien elkarte, federazio, konfederazio eta kooperatiben bitartez	Guraso-elkarteentzako dirulaguntzak	650.000			
			Guraso-elkarteen federazio eta konfederazioentzako laguntzak	350.000			
			Irakaskuntzako kooperatibentzako dirulaguntzak	33.000			
	4231	Hezkuntzaren bikaintasuna sustatzea	Batxilergoko Sari Berezien deialdia	19.760			
	1228	Titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko plazak sortzea	0-3 urteko plazak sortzeko lehia askeko deialdia	10.000.000			



HEZKUNTZA SAILBURUORDETZA

ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARITZA	4221	Ikasle sartu berriei arreta emateko beharrezkoak diren giza	Itunpeko sareko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan	1.219.965			
	4222	baliabideak eta baliabide materialak ematea	hizkuntza-errefortzua finantzatzea	1.480.035			
	4222	Adimen-desgaitasuna duten pertsonen laneratzea eta	ATZEGirekin hitzarmena, desgaitasun intelektuala duten	80.000	120.000	120.000	
	4222	gizarteratzea	Adimen-desgaitasuna duten pertsonak ikastetxeetan laneratzea eta gizarteratzea	120.000	180.000	180.000	
	4225	Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzea, eskola inklusiboaren esparruan. Eskola horrek desberdintasunak gainditzeko ahalegina egiten du, eta ikasleen premia pertsonalak kontuan hartzen ditu	Dirulaguntza izenduna Gao Lacho Drom-i	16.363	65.452		
			Dirulaguntza izenduna Kale Dor Kayikori, Gipuzkoan	19.045	76.177		
			Dirulaguntza izenduna Kale Dor Kayikori, Bizkaian	30.886	123.542		
			Dirulaguntza izenduna Amugeri	30.886	123.542		
			Dirulaguntza zuzena Gao Lacho Drom-i	16.363			
			Dirulaguntza zuzena Kale Dor Kayikori, Gipuzkoan	19.044			
			Dirulaguntza zuzena Kale Dor Kayikori, Bizkaian	30.886			
			Dirulaguntza zuzena Amugeri	30.886			
	4222	Laguntza eta errefortzuko programen bitartez ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzea, eta aniztasunari aurre egiteko neurriak bultzatzea, eskola goiz uzten duen ikasle-kopurua murrizteko	Dirulaguntza izenduna IZAN Fundazioari	101.000	67.333		
			Dirulaguntza izenduna Eibarko Udalari	101.000	67.333		
			Dirulaguntza izenduna Andoaingo Udalari	101.000	67.333		
	4222	12-18 tartearen eskola-arrakasta sustatzea, gaitasunak garatzen eta ezagutzak eskuratzen lagunduz, bai ikasketekin jarraitzeko, bai bizitza aktiboan sartzeko	Dirulaguntza izenduna Bilboko Udalari	30.000			
	4222	Eskolatzea eta hezkuntza-erantzuna sustatzea inoren kargura ez dauden adingabe atzeritarren kolektiboari	Dirulaguntza izenduna CPES Diego Berguines-Otxarkoaga ikastetxeari	227.120	368.220		
			Dirulaguntza zuzena CPES Diego Berguines-Otxarkoaga ikastetxeari	80.000			
	4221	Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei eskatzen zaien hezkuntza-erantzuna ahalbidetzea	Dirulaguntza izenduna Gregorio Ybarra Prosordos Elkarteari	71.950	158.090		
			Dirulaguntza izenduna desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko erakundearen Euskal Elkarteari (Fevas Plena Inclusión Euskadi)	12.000			
			Zuzeneko dirulaguntza Zeinu Hizkuntzako Interpretea kontratatatu behar duten itunpeko ikastetxe pribatuei	100.000	100.000		
	4231	Desgaitasuna duten hezkuntza-premia berezietako ikasleen eskola-garraioa finantzatzea	Desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako Eskola Garraiorako Banakako Dirulaguntzak, dagokien ikastetxe publikoan eskolatuta, edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleitutako ikastetxe publiko edo pribatu itundu batean eskolatuta, departamentuaren eskola-garraioa erabili ezin badute	4.522.000	1.938.000		
	4221	Bizkaiko Lurralde Historikoan kalteberatasun-egoeran dauden eta gizarteratzeko, laneratze edo hezteko arazoak dituzten haurrak, nerabeak eta gazteak gizarte- eta hezkuntza-arloan sortzen ari diren premien aurrean prebenitzea eta esku hartzea	Dirulaguntza izenduna Bizkaiko Lurralde Historikoko Osabidezko Hezkuntzako eta Lanerako Prestakuntzako Partzuergoari, foru-aldundiekin lankidetzan	479.890			



LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDETZA

ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gauekoa
PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA ZUZENDARITZA	4222	Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko aukera erraztea	Eskaintza partzialeko heziketa-zikloak sare pribatuan	289.300	286.700		
			Dirulaguntzen deialdia, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkartza duten gizarte-eragileek	468.000			
	4222	Lanbide-heziketa produkzio-sektoreen egungo eta etorkizuneko premietara eta pertsonen enplegarritasunera egokitzea, enpresetan gero eta handiagoa den kualifikazio-eta espezializazio-beharrari erantzuteko	Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako ekipamendua erostea edo alokatzea	2.217.487			
	4222	Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualaren programa indartzea, konpetentzien garapena bizkortzeko eta lanbide-eremuetara egokitzeko bide gisa	Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programak itunpeko ikastetxe pribatuetan	530.235	219.765		
	4222	Hezkuntza-eskaintza, gaikuntza teknologikoa eta, oro har, eskaintako lanbide-irakaskuntzaren kalitatea hobetzea	Dirulaguntza izenduna IKASLAN Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarteari	195.339			
	4222	Lanbide Heziketako Euskal Planaren eta LHko Ikastetxe Integralen Sareko ikastetxeen zereginaren garapena bultzatzea	Dirulaguntza izenduna AICE-IZEA Ikastetxeen Elkarte Independenteari	40.000			
			Dirulaguntza izenduna Heziketa Teknikoko Elkarteari (HETEL)	138.490			
	4222	Euskarazko material didaktikoak ikastetxeen eskura jartzea, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan erabil ditzaten	Dirulaguntza izenduna LANEKI elkarteari	150.000			
	4222	Lanbide Heziketari laguntzea, lanbide-esperientzia eskainiz	Dirulaguntza izenduna Zahar eta Gazte LHko irakasle erretiratuen elkarteari	50.000			
	4222	Gure profesionalen kualifikazioak ekoizpen-ingurunearen beharretara egokitzea, enpresen produktibitatea handitzeko eta laneratzea errazteko helburu bikoitzarekin	Dirulaguntza izenduna Euskal Enpresarien Konfederakuntzari (CONFEBASK)	284.821			
	4222	Beste herrialde batzuetan lanbide-heziketa bultzatzea	Dirulaguntza izenduna Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari	250.000			



LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDETZA

ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
TEKNOLOGIA ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARITZA	4226	Lanbide Heziketako ikastetxeen berrikuntza eta nazioartekotzea eta ikasleen eta irakasleen mugikortasuna sustatzea, Erasmus + programaren esparruan	KA1 ekintzak antolatu eta garatzea ERASMUS + programaren esparruan Dirulaguntza izenduna Euskal Enpresarien Konfederakuntzari (CONFEBASK)	200.000 75.000	300.000		
	4226	Lanbide Heziketako irakasleen eguneratze eta espezializazio pedagogikoa sustatzea	Sare pribatuko irakasleen prestakuntza	98.000	182.000		
	4226	Herritarren ezagutza- eta prestakuntza-mailetan aurrera egitea	Bizialdi osoko ikaskuntza-proiektua	418.500	511.500		
	4222	Lanbide Heziketako ikasleen atzerriko hizkuntzetako hizkuntza-gaitasuna sendotzea	Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetaiko ikasleen atzerriko hizkuntzetako hizkuntza-gaitasuna indartzea	146.200	20.000		
	4222	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren Legea garatzea eta abian jartzea	Lanbide-heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzea	166.000			
	4222 5414	Lanbide-heziketa produkzio-sektoreen egungo eta etorkizuneko premietara eta pertsonen enplegarritasunera egokitzea, enpresetan gero eta handiagoa den kualifikazio- eta espezializazio-beharrari erantzuteko	Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxe pribatuen sarean aplikatutako ikerketa eta berrikuntzako proiektuen garapena finantzatzea teknologian, digitalizazioan, errendimendu handiko ikaskuntzetan eta kudeaketa aurreratuan Berrikuntza aplikatuko proiektuak, 4. industria-iraultza, finantzatu eta garatzea, Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketako Euskal Planaren bidez zehaztutako estrategiarekin bat etorritik eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei zuzenduta	1.227.360 154.000	1.841.040 616.000		
	4226	Lanbide Heziketako ikastetxeetan berrikuntza sustatzea, ikastetxeen eta enpresa-sarearen arteko lankidetzaren bidez	Dirulaguntza izenduna Orkestrari	60.000			
	1228	Ekintzailatza ekintzak sustatzea	Lanbide Heziketako 14 ikastetxe bateratuei ekintzailatzeko gelak sortzeko laguntza zuzena - "Lanbide Heziketa bultzatzeko plan estrategikoa"	70.000			
	1228	Azpiegituraz eta teknikoki bikain hornituta dauden Bikaintasun Zentroen sarea sortzea	Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxe bateratu bati laguntza zuzena: Bikaintasun zentroak "Lanbide Heziketa bultzatzeko plan estrategikoa"	1.000.000			



UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUORDETZA							
ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARITZA	4231	Unibertsitateko irakaskuntzan sartzeko aukera-berdintasuna sustatzea	Beka orokorrak	26.566.312	26.480.000		
			Desgaitasunak dituzten pertsonen garraiorako dirulaguntzak	100.000			
			Unibertsitateko ikasleen nazioarteko mugikortasun-bekak	2.200.000			
			IKASIKER lankidetzak-bekak	330.000	360.000		
	4223	Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea	Dirulaguntza izenduna Deustuko Unibertsitateari (kap 4)	5.983.836			
			Dirulaguntza izenduna Deustuko Unibertsitateari (kap 7)	3.879.907			
			Dirulaguntza izenduna Mondragon Unibertsitateari (kap 4)	5.167.829			
			Dirulaguntza izenduna Mondragon Unibertsitateari (kap 7)	2.687.148			
			Dirulaguntza izenduna Renoko Unibertsitateari	60.000			
			Dirulaguntza izenduna Deustuko Unibertsitateari	428.100			
			Dirulaguntza izenduna Mondragon Unibertsitateari	182.400			
			Dirulaguntza izenduna Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Goi Eskolari (TECNUN)	74.500			
			Euskadiko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) ikastetxe elkartuei dirulaguntza izendunak	500.000			
			Dirulaguntza izenduna Udako Ikastaroak Fundazioari	90.000			
			Dirulaguntza izenduna Euskampus Fundazioari	1.000.000			
			Dirulaguntza izenduna AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioari	119.102			
			Dirulaguntza izenduna "Begoñako Andra Mari" Irakasleen Unibertsitate Eskolari	70.000			
			Dirulaguntza izenduna Elgoibarko Makina Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskolari	90.000			
			Dirulaguntza zuzena Euskampus Fundazioari	119.102			
			Dirulaguntza zuzena Euskampus Fundazioari	100.000			
			Dirulaguntza zuzena Udako Ikastaroak Fundazioari	8.094			
			Dirulaguntza zuzena Udako Ikastaroak Fundazioari	29.629			
			Dirulaguntza izenduna Udako Euskal Unibertsitateari	120.000			
			Dirulaguntza zuzena Gasteizko UNEDi	65.821			
			Dirulaguntza zuzena Bergarako UNEDi	88.021			
			Dirulaguntza zuzena Bizkaiko UNEDi	53.343			



UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUORDETZA							
ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
IKERKETA ZUZENDARITZA	5412	I+G+b arloan giza baliabideak indartzea	Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko laguntzen deialdia	1.948.656	10.144.106		
			Ikertzaile doktoreentzako hobekuntzarako laguntzak	337.744	2.000.548	1.285.419	1.112.101
			Ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako aplikazio zentroa ez den beste zentro batetan egonaldia egiteko deialdia	465.000			
			Basque Visiting Fellowship programa	83.000	22.000		
			Ikermugikortasun programa	160.000	40.000		
			IKERMUGI+	550.000			
			Ikerkuntzako Euskadi Saria	42.000			
	5412 1228		Kongresu eta bilera zientifikoen antolaketa finantzatzeko laguntzak	300.000	100.000		
			Oinarritzko eta/edo aplikatutako ikerketa-proiektuetarako deialdiak	320.000	280.000	152.000	48.000
			Unibertsitatea-Enpresa baterako proiektuak	235.000	198.750	66.250	
			Dirulaguntza izenduna BCAM-i	428.002	176.999		
			Dirulaguntza izenduna BCMaterials-i	396.255	103.161		
			Dirulaguntza izenduna DIPC-ri	1.441.701	190.478		
			Dirulaguntza izenduna MPC-ri	371.405	67.106		
			Dirulaguntza izenduna Nanogune-ri	94.893			
	5412	Ikerketa-azpiegiturak handitzea	Ekipamendu zientifikoa finantzatzeko laguntzak	1.000.000			
	5412 5414	Euskal Zientzia Sistemako erakundeekin lankidetzatza sustatzea	Dirulaguntza izenduna Ikerbasqueri	21.150.000			
			Dirulaguntza izenduna Programa LINKER-Ikerbasqueri	6.000.000	1.000.000		
			Dirulaguntzak izendunak Ikerbasqueri. IKUR Programa	4.000.000			
			Dirulaguntza izenduna DIPC-ri	990.000			
			Dirulaguntza izenduna EUSKAMPUS Fundazioari	265.000			
			Dirulaguntza izenduna ELHUYAR-i	180.000			
			Dirulaguntza izenduna Eusko Ikaskuntzari	24.000			
			Dirulaguntza izenduna Innobasqueri	240.000			
			Dirulaguntza izenduna Jakiunderi	42.400			
			Dirulaguntza izenduna UPV/EHU Euskara Institutuari	100.000			
			Dirulaguntza izenduna Udako Euskal Unibertsitateari (UEU)	120.000			
			Dirulaguntza izenduna UPV/EHUri	75.000			
			Dirulaguntza izenduna BERC Fundación Biofísica Bizkaia (FBB) fundazioari	75.000			
			Dirulaguntza izenduna BERC Materials Physic Center-i	200.000			
			Euskal Zientzia Sistemako erakundeekin lankidetzatza sustatzea	260.000			
			Dirulaguntza izenduna Donostia International Physics Center Fundazioari (DIPC)	400.000			
			Dirulaguntza zuzena Euskal Material, Aplikazio eta Nanoestruturaz-BCMaterials Zentroari	800.000			
			Dirulaguntza zuzena Donostia International Physics Center-DIPC Fundazioari	1.600.000			
			Dirulaguntza zuzena Euskampus Fundazioari	260.000			
			Dirulaguntza zuzena Euskampus Fundazioari	235.000			

ZUZENDARITZA	PROG.	HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2024	2025	2026	2027-Gainekoa
IKERKETA ZUZENDARITZA	5412	Euskal Zientzia Sistemako erakundeekin lankidetzaz sustatzea	Dirulaguntza zuzena Ikerbasqueri (4.Kap.)	1.700.000			
			Dirulaguntza zuzena Ikerbasqueri (7.Kap.)	100.000	1.000.000	1.000.000	1.900.000
			Dirulaguntzak zuzena BC3	39.650			
			Dirulaguntza zuzena BCAM	1.000.000			

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Hezkuntza saila****Zuzendaritza:** Kabinete eta Komunikazioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Hezkuntza sustatzea eta zabaltzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Ikasleen Elkarteari (EHIGE).

Organoa:

Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Euskal Eskola Publikoaren eginkizun soziala indartzea.

Ekintzak:

Euskal Eskola Publikoaren ekitaldia kofinantzatzea urtero.

Adierazleak:

Lagundutako erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	50.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Hezkuntza.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Administrazio eta Zerbitzuak**Zuzendaritza:** Kudeaketa Ekonomikoa**Epea:** : 2024-2025**Helburu Estrategikoa 1:**

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikasleei hezkuntzarako sarbidea ahalbidetzea, baldintza ekonomikoak oztopo ez diren beka- eta laguntza-sistema baten bidez.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Unibertsitateaz kanpoko ikasleentzako eskolatze-beka eta laguntzen deialdia.

Organoa:

Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Hezkuntza berdintasun-egoeran lortzeko dauden mugak edo desorekak konpentsatzeko neurriak hartzea.

Ekintzak:

Bekak eta laguntzak ematea haur hezkuntzako, derrigorrezko irakaskuntzetako, unibertsitateaz kanpoko derrigorrezko irakaskuntzen ondoko ikasketetako eta hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleentzat.

Adierazleak:

Ikasle onuradunak: 120.000

Laguntza kopurua: 190.000

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	22.800.000 €	39.500.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Unibertsitateaz kanpoko mailetako ikasleak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ikasten ari direnak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Administrazio eta Zerbitzuak**Zuzendaritza:** Kudeaketa Ekonomikoa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 2:**

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioa bermatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Eskola-garraiorako banakako dirulaguntzen deialdia, Haur Hezkuntzako lehen zikloko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako hirugarren mailako ikasleentzat.

Organoa:

Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Hezkuntza Sailak antolatutako eskola-garraioaren zerbitzura egokitzen ez diren beharrianak dituzten ikasleen eskola-garraiorako banakako laguntzak ematea.

Ekintzak:

Aztartzea zergatik ezin diren egokitu eskola-garraiorako eskubidea duten ikasleak sail honek antolatutako ibilbideetara.

Adierazleak:

Laguntza kopurua: 4.000

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	2.000.000 €	2.000.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta eta emateko prozedura:

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Administrazio eta Zerbitzuak**Zuzendaritza:** Kudeaketa Ekonomikoa**Epea:** 2024-2027**Helburu Estrategikoa 3:**

Enpleguari eustea eta itunpeko ikastetxeetako irakasle-plantillak gaztetzea, hurrengo urteetan beherakada demografikoa aurreikusten baita.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Itunpeko ikastetxe pribatuentzako laguntzen deialdia, enpleguari eusteko eta irakaskuntzako plantillak gaztetzeko akordioen esparruan, datozen urteetan demografia-jaitsiera aurreikus daitekeelako.

Organoa:

Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

- Enpleguari eustea, irakasleak birkokatuz
- Irakasleen plantilla gaztetzea, errelebo-kontratuari lotutako erretiro partzialaren bidez

Ekintzak:

2023-2024 ikasturtean itundutako ikasgelak gutxitzearen ondorioz lanpostua galtzen duten irakasleen antzintasuna ordaintzea, betiere birkokatzeari ekiten bazaio, eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak, birkokatzea ezinezkoa denean. Ugazaben kuotaren gainkostuak Gizarte Segurantzari ordaintzea.

Adierazleak:

Irakasle kopurua: 20

Errelebo-kontratuari lotutako erretiro partzialak: 205

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	Programa	2024	2025	2026	2027
4	4221	3.372.356 €	2.398.309 €	2.398.309 €	799.436 €
4	4222	1.126.901 €	1.126.901 €	1.126.901 €	430.466 €

Zein sektoreri dago zuzenduta eta emateko prozedura:

Itunpeko ikastetxe pribatuak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Administrazio eta Zerbitzuak**Zuzendaritza:** Kudeaketa Ekonomikoa**Epea:** 2023-2024**Helburu Estrategikoa 4:**

Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza pribatu arautuan liberatu sindikalen kostua finantzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Zuzeneko dirulaguntza EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeei eta ikastolei.

Organoa:

Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Irakasle-liberazioak ikastetxe pribatuetarako dakarren kostua finantzatzea, eremu sindikalean soilik lan egin dezaten.

Ekintzak:

18 liberazioen soldata-kostua ordaintzea.

Adierazleak:

Gizarte ekimena: 12 liberazio

Ikastolak: 6 liberazio

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	1.205.900,33 €

Zein sektoreri dago zuzenduta eta emateko prozedura:

Itunpeko ikastetxe pribatuak.

Emateko prozedura:

Gobernu Kontseiluaren akordioa.

**Helburu Estrategikoa 5:**

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-konplexutasun bereziko itunpeko ikastetxeei finantzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Zuzeneko dirulaguntza EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeei eta ikastolei.

Organoa:

Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Hezkuntza-lerroko errefortzuko irakasle batek hezkuntza-arloko konplexutasun berezia duten itunpeko ikastetxe pribatuentzat dakarren kostua finantzatzea, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleen arreta hobetze aldera.

Ekintzak:

50 kontratazioen soldata-kostua ordaintzea.

Adierazleak:

50 errefortzuko irakasle

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	3.016.261,56 €

Zein sektoreri dago zuzenduta eta emateko prozedura:

Itunpeko ikastetxe pribatuak.

Emateko prozedura:

Gobernu Kontseiluaren akordioa.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Administrazio eta Zerbitzuak**Zuzendaritza:** Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Giza baliabide eta baliabide teknikoekin saileko Inbertsioen Planaren definizioari babesa ematea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko laguntzak (Udalaguntza).

Organoa:

Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

Helburuak:

Hezkuntza-eraikinak eguneratzea eta egokitzea.

Ekintzak:

Hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa.

Adierazleak:

Diruz lagundutako eskabideen kopurua: 375

Lurralde banaketa: Araba %16, Gipuzkoa %33, Bizkaia %51

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025	2026	2027
7	10.000.000 €	10.500.000 €	10.500.000 €	10.500.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta eta

Hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal-jabetzako eraikinetan obra-proposamenak aurkezten dituzten EAeko udalak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Administrazio eta Zerbitzuak**Zuzendaritza:** Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia**Epea:** 2024-2031**Helburu Estrategikoa 1:**

Giza baliabide eta baliabide teknikoekin saileko Inbertsioen Planaren definizioari babesa ematea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 2:

Kooperatiba edo fundazio gisa titulartasuna duten itunpeko sareko ikastetxeetan inbertsioak finantzatzea (HEZKOOP-2024).

Organoa:

Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Hezkuntza-erakinak eguneratzea eta egokitzea.

Ekintzak:

Kooperatiba edo fundazio gisa titulartasuna duten itunpeko sareko ikastetxeetan obrak egiteko gastuak finantzatzea.

Adierazleak:

Diruz lagundutako eskabideen kopurua: 75

Lurralde banaketa: Araba %16, Gipuzkoa %33, Bizkaia %51

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031
7	3.000.000	3.000.000	3.000.000	3.000.000	3.000.000	3.000.000	3.000.000	3.000.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Itunpeko sareko ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 1:**

Hezkuntza berritzea bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Eleaniztasunerantz: proiektu eleanitzak itunpeko ikastetxeetan.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburuak:

Sailak sustatutako programak eta proiektuak ezartzea lehentasunezko jardun-eremuetan.

Ekintzak:

Deialdia, itunpeko ikastetxe pribatuen federazioek eta elkarteek ikastetxearen hizkuntza-proiektuarekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten.

Adierazleak:

- Hizkuntza-proiektuak itunpeko ikastetxeetan A modalitatea: 132 ikastetxe
- Hizkuntza-proiektuak itunpeko ikastetxeetan B modalitatea: 92 ikastetxe

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	444.000 €	888.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 2:**

Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, gure hezkuntza-sistema hobetzeko eta lanbide-hobekuntzarako.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioari.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburua:

"Irakasteko ikasi" prestakuntza-programa diseinatzea eta finantzatzea, Unibertsitatez kanpoko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzako "Prest_Gara" Planaren barruan. Programa hori irakasleei zuzenduta dago, eta EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasleak hartuko ditu ziklo horretan, sailak hautatutako ikastaroetan.

Ekintzak:

"Irakasteko ikasi" prestakuntza-programa, Unibertsitatez kanpoko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzako "Prest_Gara" Planaren barruan.

Adierazleak:

- "Irakasteko ikasten" programatik hautatutako ikastaroen kopurua:10
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako plazak: 20 plaza ikastaro bakoitzean

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	40.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 3:**

EAEn Europako herri, nazionalitate eta eskualdeen arteko harremanak bultzatu eta sakontzea, identitate europarra sustatuz eta euskal gizartea Europaren eraikuntzan gertatzen diren aurrerapenen inguruan sentsibilizatuz.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluari, Francisco Javier de Landaburu sarien finantzaketan laguntzeko.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburuak, ekintzak eta adierazleak:

Ikasleei XXI. mendeko Europako gizartearen oinarri diren balio eta printzipioetan oinarritutako prestakuntza helaraztea: bakea, giza duintasunaren eta giza eskubideen errespetua, demokrazia, elkartasuna, aniztasuna eta lankidetzeta.

Ekintzak:

Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak sustatutako Francisco Javier de Landaburu saria finantzatzen laguntzea.

Adierazleak:

Ikasle parte-hartzaileak: 369

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	10.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 4:**

Bigarren Hezkuntzako ikasleen hizkuntza prestakuntza ahalbideratzea, atzerrian egoteko bekak ematearen aldeko politika baten bitartez.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko plazetarako deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoez finantzatzeko diren ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleei zuzendua.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Bigarren irakaskuntzako ikasleen hizkuntza prestakuntza ahalbidetzea, atzerriko egonaldi eta ikastaroen bitartez.

Ekintzak:

Alemanieraz, frantsesez eta ingelesez hitz egiten duten herrialdeetan plazak betetzeko deialdia.

Adierazleak:

Ikasle onuradunak: 536

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	1.100.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta eta emateko prozedura:

EAEko funts publikoz sostengatzen diren ikastetxetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. eta 2. maila ikasten duten ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 5:**

Gizarte-desberdintasunak arintzea, herritarrek irakaskuntzarako eta ezagutzarako ahalik eta sarbide handiena izan dezaten, errendimendu eta aprobetxamendu akademikoa hobetzeko eta bikaintasuna bultzatzeko.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna BBK Urdaibai zentroari.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

- Bizkaiko haurrei naturara, komunikaziora eta bizikidetzara hurbiltzen lagunduko dien ingurune fisiko eta pedagogikoa.
- Irakasleei esperientzia pedagogikoetarako eta materialak prestatzeko leku bat eskaintzea, ezagutza eratzeko teoria konstruktibistetan inspiratutako pedagogia-testuinguru batean kokatuta.

Ekintzak:

Urdaibaiko BBK zentroaren jarduerak finantzatzea.

Adierazleak:

Ikasle onartua: 2.050

Irakasleen dotazioa: 10

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	149.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Bizkaiko ikastetxeetan eskolatuta dauden Lehen Hezkuntzako ikasleak eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikaslegoa.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 6:**

Euskarazko ikasmaterialen sorkuntza sustatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

EIMA deialdian 3 modalitate daude:

EIMA 1: Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial inprimatuentzako dirulaguntzak.

EIMA 2.0: Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalentzako dirulaguntzak.

EIMA 4: Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial inprimatuen sorkuntza sustatzeko dirulaguntzak.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea

Helburuak:

Kalitatezko euskarazko ikasmaterialak sustatzea.

Ekintzak:

EIMA 1: Euskarazko ikasmaterial inprimatuen edizio-kostuak diruz laguntzea.

EIMA 2.0: Euskarazko ikasmaterial digitalak diruz laguntzea.

EIMA 4: Euskarazko ikasmaterial inprimatuen sorkuntza diruz laguntzea.

Adierazleak:

Deialdiaren bidez diruz lagundu nahi den ikasmaterial kopurua:

EIMA 1: 130

EIMA 2.0: 25

EIMA 4: 20

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	397.000 €	588.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskarazko ikasmaterialak sortzen dituzten entitate eta norbanakoak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 7:**

Irakasleen euskarazko prestakuntza.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

IRALE programa: Ikastetxe pribatuetoako irakasleen ordezkapenak finantzatzeko dirulaguntza.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea

Helburuak:

Irakasleen euskara-gaitasuna hobetzea (curriculumaren euskal dimentsioa, ikaslearen komunikazio-gaitasuna euskaraz).

Ekintzak:

Irakastordu barneko trebakuntza-ikastaroak egitea.

Adierazleak:

Ikastetxe pribatuetoako irakasleentzako postu kopurua (lehenengo txandan):

- Oinarrizko ikastaroak (U), urtebetekoak: 20
- Goi-mailako ikastaroak (R), hiruhilabetekoak: 27

Ikastetxe pribatuetoako irakasleentzako postu kopurua (bigarren txandan):

- Oinarrizko ikastaroak (U), urtebetekoak: 20
- Goi-mailako ikastaroak (R), hiruhilabetekoak: 18

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	1.433.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Irale programaren baitan irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 8:**

Itunpeko ikastetxeetan euskararen normalkuntza eta kulturako hizkuntza-proiektuak ezartzea. Ulibarri programa barne.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Ikastetxetako jardueren deialdia.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea

Helburuak:

Euskararen erabilera sustatzea ikastetxean, ikasgelan, eta eskolaz kanpoko jardueretan.

Ekintzak:

Ahozko adierazpeneko ekintzak, eskolaz kanpoko ekintzak, ikasle trukaketak eta sendotze egonaldiak.

Adierazleak:

Ikastetxe kopurua (itunpeko ikastetxeak)

- Ahozko adierazpena: 180 ikastetxe
- Ekintza extraeskolarrak (IKE): 167 ikastetxe
- Ikasle trukaketak (IKASBIL): 99 ikastetxe
- Sendotze egonaldiak (EGE): 19 ikastetxe
- Itunpeko ikastetxe kopurua: 177

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	1.415.000 €	980.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko Itunpeko Ikastetxe pribatuak (ez unibertsitarioak).

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 9:**

Ikasleek euskararen mundu erreferentzialari buruz duten ezagutza areagotzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Kultur eta Gizarte Bidaiak elkarteari.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea

Helburuak:

Ikasleek euskararen mundu erreferentziala ere ezagutzea, giza baloreen transmisiorako aukera eskaintzea, ikasleen solaserako trebetasunak sendotzea eta metodologia partehartzaileak sustatzea.

Ekintzak:

Euskal gizartean erreferente diren gizon-emakumeak joaten dira eskoletara haien lanbidez hitz egitera.

Adierazleak:

Saio kopurua: 115

Ikastetxe kopurua: 76

Ikasle kopurua: 4.193

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	6.400 €	30.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko ikastetxeen ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 10:**

Ikastetxeetan euskararen erabilera aztertzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Soziolinguistika Klusterrari, Berba-lapiko programaren bidez ikastetxeen jarduerak eta eremu ez-euskalduneko eskoletan ahozko gaikuntzarako programa aztertzeke.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea

Helburuak:

Eremu ez-euskalduneko Herri Ikastetxeetan ikasleen ahozko konpetentzia hobetzea.

Ekintzak:

Berba-lapiko programa inplementatzea.

Adierazleak:

LHko 41 ikastetxe

245 irakasle

5.300 ikasle

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	60.000 €	80.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 11:**

EAEko ikasleen artean irakurzaletasuna indartzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Euskal Idazleen Elkarteari.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4715 hezkuntza-sistema euskalduntzea

Helburuak:

Irakurzaletasuna eta idazteko zaletasuna bultzatzea.

Ekintzak:

Idazleak ikastetxeetara joaten dira euren liburuez hitz egitera

Adierazleak:

Saio kopurua: 360

Ikasle kopurua: 12.431

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	40.000 €	68.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko ikastetxeetako ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 12:**

ZTBP Euskadi 2030aren oinarritzko lerro estrategikoak hedatzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 1:

STEAM: sustapen eta bokazio zientifiko-teknikoak itunpeko ikastetxeetan.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

5414 Berrikuntzarako Funtsa

Helburua:

Sailak sustatutako programak eta proiektuak ezartzea lehentasunezko jardueraren eremuetan (L4. STEAM Estrategia eta ikasmaterialak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak).

Ekintzak:

Itunpeko ikastetxeetan STEAM (Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics) eredu hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak gauzatzea.

Adierazleak:

STEAM eredu hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak itunpeko ikastetxeetan: 89 ikastetxe.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	280.000 €	70.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa ematen dutenak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 13:**

Pentsamendu kritikoa, hausnarketa eta pentsamendu filosofikoa sustatzea, bigarren hezkuntzako ikasleen trebetasun kognitiboak eta sozialak garatzeko funtsezko tresna gisa.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Agora Elkarte Filosofikoari, XI.a finantzatzen laguntzeko. Olinpiada Filosofikoaren amaiera Estatuan.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburua:

Filosofia hezkuntza-curriculumean zeharkako diziplina gisa sar dadin sustatzea. Olinpiada filosofikoaren integrazioa sustatzea, esparruka lan egiteko tresna didaktiko gisa, ikasleen trebetasun kognitiboen eta sozialen garapena sustatzeko.

Ekintzak:

Bilbon Olinpiada Filosofikoaren Estatuko XI. Finala antolatzea.

Adierazleak:

Ikasle parte-hartzaileak.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	10.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko Bigarren Hezkuntzako ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**Helburu Estrategikoa 14:**

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Plangintza eta Antolaketa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 4:**

LH bultzatzea, LHko 6.Euskal Planaren ezarpena.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna IKASLAN Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen Elkarteari.

Organoa:

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Lanbide Heziketako eskaintza egiten duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoek ematen dituzten zerbitzuak hobetzea.

Ekintzak:

- Lanbide Heziketako ikastetxeetan irakasleak prestatzeko planetan laguntzea.
- Jakintzaren Gizartean irakasleen rol berria ezartzen laguntzea.
- Lanbide Heziketako zuzendarien, zuzendaritza-taldeen, irakasleen eta ikasleen gaitasunak eta konpetentziak hobetzen laguntzea, Europako beste herrialde batzuekiko harremanen bidez.
- Ikastetxeetan esperientziak garatzeko eta aprobetxatzeko aholkuak eta laguntza ematea.
- Hitzarmenaren xede diren ekintzei buruzko informazioa zabaltzea zuzendaritza-taldeen, zuzendarien, irakasleen, ikasleen, erakundeen eta enpresen artean.
- Ikasleen, gurasoen, orientatzaileen, langileen, langabeen eta, oro har, gizartearen artean, Lanbide Heziketaren eremuan zentratutako hezkuntza- sistemari buruzko informazioa zabaltzea alderdi guztietan. Hau da, prestakuntza arautua, etengabeko prestakuntza, eskaintza partziala, langabeentzako prestakuntza, gaitasunen onarpena, etab.

Adierazleak:

Laguntza jaso duten erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	195.339 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako eskaintza egiten duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**Helburu Estrategikoa 5:**

Lanbide Heziketako Euskal Planaren eta LHko Ikastetxe Integralen Sareko ikastetxeen zereginaren garapena bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna AICE-IZEA Ikastetxeen Elkarte Independenteari, lanbide-heziketako ikastetxeen sarearen bidez Lanbide Heziketako Euskal Plana garatzeko.

Organoa:

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin elkarlanean aritzea Lanbide Heziketako Euskal Planaren garapenaren zenbait ataletan, bereziki Berrikuntzari eta Kalitateari dagozkionetan.

Ekintzak:

Proiektuan planteatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak finantzatzea.

Adierazleak:

Laguntza jaso duten erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	40.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako ikastetxe.

Emateko prozedura:

Agindua.

**Helburu Estrategikoa 5:**

Lanbide Heziketako Euskal Planaren eta LHko Ikastetxe Integralen Sareko ikastetxeen zereginaren garapena bultzatzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroak 2:

Dirulaguntza izenduna Heziketa Teknikoko Elkarteari (HETEL).

Organoa:

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Lanbide Heziketako Euskal Planaren atal guztiak garatzen laguntzeko ekintzak optimizatzea, batez ere kalitatearekin, katalogo modularren eta ziurtagirien garapenarekin, kultura ekintzailearen sustapenarekin, berrikuntza teknologiko eta pedagogikoarekin, curriculumetan euskara sustatzearekin, nazioartekotzearekin eta informazio eta komunikazioko ekintzekin zerikusia dutenak.

Ekintzak:

Lankidetzak Hitzarmenean proposatutako helburuak lortzeko beharrezko baliabideen finantzaketa.

Adierazleak:

Laguntza jasotzen duten erakundeak kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	138.490 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**Helburu Estrategikoa 6:**

Euskarazko ikasmaterialak ikastetxeen esku jartzea, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan erabil ditzaten.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna LANEKI elkarteari, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetan euskarazko ikasmaterialak jartzeko.

Organoa:

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Euskarazko ikasmaterialak ikastetxeen esku jartzea, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan erabil ditzaten.

Ekintzak:

- Lanbide Heziketako zikloetarako euskarazko ikasmaterialen zabalkundea ahalbidetzea.
- Lanbide Heziketako zikloi egokitzen zaion materiala eskuratu, itzuli eta zuzendu.
- Ikasmaterialak formatu elektronikorako eta interneten jartzeko diseinatu eta maketatzea.

Adierazleak:

Laguntza jaso duten erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	150.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**Helburu Estrategikoa 7:**

Lanbide Heziketari laguntzea, lanbide-esperientzia eskainiz.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Zahar eta Gazte Lanbide Heziketa Publikoko Irakasle Erretiratuen Elkarteari.

Organoa:

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

1. Irakaskuntza profesionalaren kalitatea hobetzea.
2. Lanbide Heziketako irakasleei laguntza ematea, beren lanbide-esperientzia eskainiz, bai prestakuntza-zentroei bai eta beste erakunde eta gizarte-eragileei.
3. Inguruko enpresek eska ditzaketen teknologiak ikertu eta garatzeko erakundeen sorrera bultzatzea.

Ekintzak:

- Lanbide-heziketa ematen duten ikastetxeak garatzen laguntzea.
- Administrazioarekin lankidetzan aritzea, Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeak garatzen lagunduko duten proiektuak eginez.
- Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasleen etengabeko prestakuntzako programak garatzen laguntzea.
- Europako Batasuneko beste irakasle-elkarte batzuekin lankidetzan aritzea eta partekatzea, Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako proiektuak eta programak garatzeko.
- Administrazioarekin lankidetzan aritzea Lanbide Heziketarekin lotutako gaietan, hala eskatzen duenean.

Adierazleak:

Laguntza jaso duten erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	50.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**Helburu Estrategikoa 8:**

Gure profesionalen kualifikazioak ekoizpen-ingurunearen beharretara egokitzea, enpresen produktibitatea handitzeko eta laneratzea errazteko.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Euskal Enpresarien Konfederakuntzari (CONFEBASK), Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren eskaintza euskal produkzio- sistemaren beharretara egokitzeke.

Organoa:

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Euskal enpresa-ehunari ezagutza transferituz eta aplikatuz enpresen produktibitatea handitzea ahalbidetuko duen eredu ekonomiko bat garatzeko beharrezkoak diren gaitasun profesionalak bermatzea.

Ekintzak:

- Produktzioan eskatzen diren konpetentzia-estandarrak identifikatzea eta definitzea.
- Lanbide Heziketako Euskal Planaren garapenarekin lotutako prozesu guztietan kalitatea sustatzen laguntzea.
- Lanbide Heziketako irakasleei enpresetan sartzen laguntzea, beren prestakuntza eguneratzen laguntzeko.
- Lantokiko Prestakuntza modulua garatzea, bereziki prestakuntza-praktikak tutorizatzeke arduratzen duten enpresetako instruktoreen prestakuntzaren bidez.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin lankidetzan aritzea ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa dualaren esparruan, enpresetako instruktoreak prestatuz, eredu horren pean dauden ikasleen kopurua handitzeko aukera emango duten enpresak eratuz, enpresen eta parte hartzen duten instruktoreen bidez jarraipena eginez edo Lanbide Heziketa dualaren eredua zabalduz.

Adierazleak:

Laguntza jaso duten erakundeek kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	284.821 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketan esku hartzen duten kolektiboak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Plangintza eta Antolaketa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 9:**

Beste herrialde batzuetan lanbide-heziketa bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari.

Organoa:

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburua:

Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin lankidetzan aritzea, beste herrialde batzuetan lanbide-heziketa bultzatzeko.

Ekintzak:

Proiektuan planteatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak finantzatzea.

Adierazleak:

Laguntza jaso duten herrialdeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	250.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketan esku hartzen duten kolektiboak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 1:**

Lanbide Heziketako ikastetxeen berrikuntza eta internazionalizazioa eta horien ikasle eta irakaslegoaren mugikortasuna sustatzea, Erasmus+ Europako programaren barruan.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntzak Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, ERASMUS + programaren esparruaren barruan.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza

Helburuak:

Lanbide Heziketako heziketa zikloetako ikasle eta irakasleen ikaskuntza-arrazoiengatiko mugikortasuna sustatzea.

Ekintzak:

- Erasmus+ programa finantzatzeko Europako funtsak kudetatzen dituen Estatuko Agentziak onartutako mugikortasun proiektuak batera finantzatu, EAEko ikastetxe edo entitate pribatuek bultzatutakoak badira.
- Erasmus+ Europako programaren barruko ereduak proiektuak aurkezteko urteroko deialdiak, informazioa banatzea, eta jarduerak koordinatzea.
- Programaren Batzorde Zuzentzaile nazionalen parte hartu eta Agentzia espainiarrari lagundu proiektuak ebaluatzeko eta aukeratzeko zereginetan.

Adierazleak:

Ikastetxe edo entitate pribatuetako mugikortasuneko proiektu-kopurua: 15

Ikastetxe edo entitate pribatuetako mugikortasun kopurua: 600

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	200.000 €	300.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Estatuko Agentziak onartutako Lanbide Heziketako zikloetako mugikortasun proiektua duten Ikastetxe edo entitate pribatuak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Lanbide Heziketako ikastetxeen berrikuntza eta internazionalizazioa eta horien ikasle eta irakaslegoaren mugikortasuna sustatzea, Erasmus+ Europako programaren barruan.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 2:

Dirulaguntza izenduna Euskal Enpresarien Konfederakuntzari (CONFEBASK) Lanbide Heziketaren internazionalizazioa bultzatzeko.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza

Helburuak:

Sailarekin lankidetzan aritzea Lanbide Heziketako VI. Euskal Planean jasotako Lanbide Heziketako ikasleen nazioartekotzea eta mugikortasuna sustatzeko ekimenen esparruan, bereziki planeko zazpigarren ardatz estrategikoan "LHko euskal sistema nazioartekotzea".

Ekintzak:

Europako mugikortasuna sustatzea (ikasleak, irakasleak, LH duala), Europako proiektuen ekitaldiak zabaldu eta egiteko, eta Lanbide Heziketako nazioarteko sare nagusietan parte hartzea.

Adierazleak:

Mugikortasuna bultzatzeko kontaktatutako ikastetxeen kopurua: 100

Mugikortasun-proiektuetan parte hartzeagatik aintzatespena jaso duten ikasleen kopurua: 70

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	75.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 2:**

Lanbide Heziketako irakasleen eguneratze eta espezializazio teknologiko eta pedagogikoa bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntzak Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak irakasten dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei, irakasleak prestatzeko jarduerak egin ditzaten.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuaren Zuzendaritza

Programa:

4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza

Helburuak:

Irakasleen zientziaren eta teknologiaren alorreko ezagutzak eguneratzea. Horretarako, irakasleak benetako ingurune profesionalera gerturatzea erraztu behar da eta irakaskuntza metodologia berriak landu behar dira irakaskuntza prozesua hobetuz.

Ekintzak:

- Lanbide Heziketako irakasleek duten lehentasunezko prestakuntza-beharrak zehaztea.
- Ikastetxe bakoitzak bere Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana gauzatu dezala bultzatzea.

Adierazleak:

Irakasleen prestakuntza-proiektuen kopurua (ikastetxe pribatuak): 75

Prestatutako irakasle kopurua: 750

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	98.000 €	182.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako heziketa zikloak emateko baimena duten itunpeko ikastetxe pribatuak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratua**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 3:**

Herritarren ezagutza- eta prestakuntza-mailetan aurrera egitea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzak.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza

Helburuak:

1. Bizialdi osoko ikaskuntza bultzatzea pertsonal, sozial eta profesional garapenerako bide bezala, eta baita norberen poztasunerako jakintzaren gizartean parte hartzeagatik eta aktibo sentitzeagatik.
2. Pertsona guztien esku jarri nahi dira berrikuntza teknologikoaren eta ekoizteko moduen aldaketen erronkei aurre egiteko beharrezko baliabideak; baita gizartean modu aktiboan parte hartzeko beharrezkoak diren baliabideak ere, azken hauek, edozein ezagutza esparrutan bizi osorako erabilgarria izango den ikaskuntza garatuko duten jarduketan bidez.

Ekintzak:

- Prestakuntza-jarduera espezifikokoak, pertsona-talde jakin baten prestakuntza-beharrei erantzuteko diseinatu eta planifikatutakoak.
- Ikaskuntzako bitartekari-zerbitzuak.
- Prestakuntzako edo hezkuntzako metodologia berrien esperimendazioari buruzko proiektuak; ezagutzaren belaunaldi arteko transferentziari buruzkoak, prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak baztertzeari buruzkoak, edota biziladi osoko ikaskuntzarekin lotutako beste edozein.

Adierazleak:

Bizialdi osoko prestakuntzako jarduerak garatuko dituzten proiektu-kopurua: 18
Bizialdi osoko ikaskuntzako bitartekari-jarduerak garatuko dituzten proiektu-kopurua: 15

Bizialdi osoko ikaskuntzaren inguruko esperimendazio-proiektu kopurua: 3
Proiektu hauen bidez, arreta izango duten pertsonen kopurua: 6.000

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	418.500 €	511.500 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Udalerrriak, toki eta eskualdeko garapen agentziak, udal sozietateak, unibertsitateak, ikastetxe pribatuak, merkataritza edo gizarte-ekonomiako sozietateak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 4:**

Lanbide Heziketako ikasleen atzerriko hizkuntzetako hizkuntza-gaitasuna sendotzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleen atzerriko hizkuntzetako hizkuntza-gaitasuna indartzeko dirulaguntzak.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

1. Lanbide Heziketako heziketa zikloetako ikasleek atzerriko hizkuntzetan duten gaitasuna indartzea, ingelesez batez ere.
2. Lanbide Heziketako heziketa zikloetako ikasleek mugikortasun proiektuetan parte hartzea erraztea.
3. Lanbide Heziketako heziketa zikloetako ikasleen enplegarritasuna sendotzea.

Ekintzak:

Ikasleen hizkuntza indartzeko prestakuntza egitea.

Adierazleak:

Programa parte hartzen duten ikastetxe pribatu-kopurua: 15

Programa parte hartzen duten ikastetxe pribatuetako ikasle-kopurua: 250

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	146.200 €	20.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako heziketa zikloak emateko baimena duten itunpeko ikastetxe pribatuak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratua**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 5:**

Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide Heziketari buruzko Legea garatu eta abian jartzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko dirulaguntzak.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Lanbide Heziketako ikasleen ekintzailatza-kultura bultzatzea

Ekintzak:

Enpresa-simulazioko proiektuak garatzea.

Adierazleak:

Parte hartzen duten ikastetxe-kopurua: 20

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	166.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 6:**

Lanbide Heziketako produkzio sektoreen egungo eta etorkizuneko premietara eta pertsonen enplegarritasunera egokitzea, enpresek kualifikazio eta espezializazioa gero eta handiagoen arloan dituzten premiei erantzuteko.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxe pribatuen sarean aplikatutako ikerketa eta berrikuntzako proiektuen garapena finantzatzeko dirulaguntzak, ondorengo alorretan: teknologian, digitalizazioan, etekin handiko ikaskuntzetan eta kudeaketa aurreratuan.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

5414 Berrikuntzarako Funtza

Helburuak:

Ikastetxeetako irakasleen prestakuntza bultzatzea, Lanbide-heziketan eta ikastetxeren eredu berrian aurreikusitako aldaketak eta eraldaketak behar duten lidergoa ahalbidetzeko beharrezkoak diren gaitasun berrien garapena bilatuz.

Ekintzak:

Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren hedapenean aurreikusitako eremu estrategikoekin bat datozen jardueren garapenerako dirulaguntzak.

Adierazleak:

Parte hartu duten ikastetxe kopurua: 32

Diruz lagundutako ekintza kopurua: 42

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	1.227.360 €	1.841.040 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide-heziketako zikloak dituzten itunpeko ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 6:**

Lanbide Heziketako produkzio sektoreen egungo eta etorkizuneko premietara eta pertsonen enpleagarritasunera egokitzea, enpresek kualifikazio eta espezializazioa gero eta handiagoen arloan dituzten premiei erantzuteko.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 2:

Berrikuntza aplikatuko proiektuak, 4. industria-iraultza, finantzatzeko eta garatzeko dirulaguntzak, Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketako Euskal Planaren bidez definitutako estrategiarekin bat datozenak eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei zuzendutakoak.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

5414 Berrikuntzarako Funtsa

Helburuak:

Lanbide Heziketako ikastetxeetan inguru estrategiko eta espezializazio-guneak ezartzea, ikasleriaren enplegarritasuna hobetu eta Euskal Herriko enpresek, batez ere ETEak, abantaila lehiakorra lortu ahal izateko.

Ekintzak:

Dagokion ikasturtean lanbide Heziketako Euskal Planean eta Gobernu Ekintzaren Plangintza Estrategikoko Ekimenei dagozkien beste plan batzuetan diseinaturiko espezializazio adimentsu estrategiarekin bat datozen berriztapen proiektuen garapenerako dirulaguntzak.

Adierazleak:

Diruz lagundutako proiektuak: 25

Proiektuetan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua: 20

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	154.000 €	616.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuak**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 7:**

Lanbide Heziketako ikastetxeetan berrikuntza sustatzea, ikastetxeen eta enpresa-sarearen arteko lankidetzaren bidez.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Orkestrari, Lanbide Heziketako FP-Empresa ikastetxearen lankidetzaren bultzatzeko.

Organoa:

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuaren Zuzendaritza

Programa:

4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza

Helburuak:

1. Lanbide-heziketaren eta enpresen arteko lankidetzaren onura ezaugarritzea eta ulertzea, elkarrekiko onuran eta ezagutzaren noranzko biko transferentzian oinarrituta.
2. Ikastetxeetako irakasleek eta ikasleek lankidetzatik eratorritako ezagutzak eskura ditzaten erraztea, bai eta lanbide-heziketa ematen duten ikastetxe publiko eta itunduen sare osoak ere.

Ekintzak:

- Lanbide Heziketako enpresen eta ikastetxeen berrikuntzan onurak identifikatzea eta sistematizatzea, Lanbide Heziketaren eremuan ekimenak eta programak bultzatuz.
- Lanbide Heziketan ezagutza berria sortzeko aukera aztertzea.
- LHko ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzaren ahalbidetzen duten faktoreak identifikatzea, sistematizatzea eta kontzeptualizatzea.

Adierazleak:

Lankidetzaren ondorioz Orkestrarekin garatutako ekintzen kopurua: 2

Orkestrarekiko lankidetzak eragina duen Lanbide Heziketako programen kopurua: 2

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	60.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Hainbat arlo teknologikotan, berrikuntza aplikatuko proiektuak Lanbide Heziketako ikastetxeekin batera garatzen dituzten enpresa txiki eta ertainak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Teknologiaren eta ikaskuntza aurreratuak**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 8:**

Ekintzailatza ekintzak sustatzea

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Lanbide Heziketako 14 ikastetxe bateratuei ekintzailatzeko gelak sortzeko laguntza zuzena - "Lanbide Heziketa bultzatzeko plan estrategikoa"

Organoa:

Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

1228 Berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa

Helburuak:

Berreskuratze, Eraldaketa eta Errisilientzia Planaren C20.i02 - Lanbide Heziketa bultzatzeko plan estrategikoan parte hartzeagatik eratorritako gastuak ordaintzea.

Ekintzak:

Sortutako gelen mantentze-gastuak finantzatzea:

- Jarduerarekin zerikusia duten langileen aparteko gastuak (irakasleen irakaskuntza-orduak, ordutegian aurreikusitakoak, izan ezik).
- Irakasle arduradunaren prestakuntza eta haren mugikortasuna, beti ekintzailatza-gelekin hertsiki lotuta badaude.
- Beste erakunde edo zentruarekin abian jarritako ekintzailatza-ekintza eta -proiektuen ondoriozko gastuak.
- Ondasun eta zerbitzuarekin gastu zuzenak, beti ere, ekintzailatzarekin zerikusia badute.
- Ekintzen publizitatea, informazioarekin eta hedapenarekin lotutako gastuak.
- Zeharkako gastuak: Langileria-gastuak eginez gero, zeharkako kostuak sartu ahal izango dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 54.b) artikulua transposizioaren bidez egindako langileen zuzeneko kostuen % 15aren baliokideak.

Adierazleak:

Laguntza zuzen bat ematea.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	70.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Itunpeko Lanbide Heziketa ikastetxe bateratuak

Emateko prozedura:

Zuzeneko dirulaguntza.

**Helburu Estrategikoa 9:**

Azpiegituraz eta teknikoki bikain hornituta dauden Bikaintasun Zentroen sarea sortzea

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 1:

Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxe bateratu bati laguntza zuzena: Bikaintasun zentroak "Lanbide Heziketa bultzatzeko plan estrategikoa"

Organoa:

Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza

Programa:

1228 Berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa

Helburuak:

Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Lanbide Heziketa bultzatzeko plan estrategikoko C20.I02 50 Bikaintasun Zentroen sarea sortzea azpi proiektuan parte hartzeagatik eratorritako gastuak ordaintzea – NextGenerationEU.

Ekintzak:

Bikaintasun zentro bat finantzatzeko loturiko ekintzak:

- Irakasleen formakuntza metodologiko eta teknologikoarekin loturiko gastuak.
- Ekintzan parte hartzen duten pertsonen formakuntzarekin loturiko gastuak.
- Mugikortasun gastuak.
- Ekintzaren inguruko informazio eta zabalkundearekin loturiko gastuak.
- Ekintzarekin loturiko pertsonalaren gastu zuzenak.
- Ekipamendu gastuak.

Adierazleak:

Laguntza zuzen bat ematea.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	1.000.000

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Itunpeko Lanbide Heziketa ikastetxe bateratuak

Emateko prozedura:

Zuzeneko dirulaguntza.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Unibertsitate-irakaskuntzara sartzeko aukera-berdintasuna sustatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beken eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzendeialdia.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Baliabide ekonomiko gutxiago dituzten pertsonen unibertsitate- edo goi mailako ikasketari sartuko direla bermatzea.

Unibertsitate-ikasketak, goi mailako arte-irakaskuntzak edo goi mailako ikasketa artistiko, militar edo erlijiosoak egin behar dituzten eta, haien baldintza fisiko edo psikikoengatik, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleak Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetara joateko gastuak ordaintzen laguntzea, ezin badira zentroetara haien zailtasun berezietara egokitutako garraiobide publiko kolektiboak erabiliz joan edo, garraiobide publiko kolektibo horiek erabili ahal duten arren, beste hirugarren pertsona baten laguntza behar badute.

Ekintzak:

Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten eta unibertsitate- edo goi ikasketak Autonomia Erkidego horren edo Estatuaren gainontzekoaren lurralde-eremuan kokatutako zentro batean egin behar dituzten goi irakaskuntzetako ikasleentzako beka.

Elbarritasuna duten pertsonentzako garraiorako dirulaguntzak.

Adierazleak:

Emandako beken kopurua: 10.474

Emandako beken kopurua: 7

Aurrekontu-konpromisoak:

Deialdia	Kapitulua	2024	2025
Beka orokorrak	4	26.566.312 €	26.480.000 €
Desgaitasunak dituzten pertsonen garraiorako dirulaguntzak	4	100.000 €	

Zein sektoreri dago zuzenduta eta emateko prozedura:

Beka orokorrak: administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitate-ikasleak, lehen eta bigarren ziklokoak eta Gradu edo master ofizialeko ikasketak egiten dituztenak. Halaber, beka orokor horiek goi mailako arte-irakaskuntzak, goi mailako ikasketa militarrek, goi mailako ikasketa erlijiosoak, 2. ziklora sartzeko egokitzapen-ikastaroak eta prestakuntza-osagarriak eta 25 urtetik gorakoak unibertsitatara sartzeko prestakuntza-ikastaroa hartzen dituzte.

Pertsona elbarrituentzako garraiorako diru-laguntzak: administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta ikasketak, Gradu ikasketak edo master ofizialeko ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten unibertsitate-ikasleak. Halaber, diru-laguntza horiek goi mailako arte-irakaskuntzak, goi mailako ikasketa militarrek, goi mailako ikasketa erlijiosoak, 2. ziklora sartzeko egokitzapen-ikastaroak eta prestakuntza-osagarriak eta 25 urtetik gorakoak unibertsitatara sartzeko prestakuntza-ikastaroa hartzen dituzte.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Unibertsitate-irakaskuntzara sartzeko aukera-berdintasuna sustatzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 2:

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden eta ikasleak mugitzeko nazioarteko programak dituzten unibertsitateei eta arte- eta kirol-irakaskuntzetako goi zentroei dirulaguntzak emateko deialdia.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako unibertsitate- eta goi mailako arte-zentroetan matrikulatuta dauden ikasleen nazioarteko mugikortasuna sustatzea.

Ekintzak:

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden eta ikasleak nazioartean mugitzeko programak dituzten unibertsitateei eta goi mailako arte- eta kirol-zentroei dirulaguntzak emateko deialdia.

Adierazleak:

Erakundeen kopurua: 6

Mugikortasunen kopurua: 2.531

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	2.200.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden eta ikasleak nazioartean mugitzeko programak dituzten unibertsitateak eta arte- eta kirol-irakaskuntzetako goi zentroak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Unibertsitateko hezkuntzan sartzeko aukeraren berdintasuna sustatzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 3:

Ikasiker lankidetzak-beken deialdia

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Graduko edo unibertsitate-master ofizialeko titulazio batera bideratutako ikasketak-plan batean matrikulatuta dauden pertsonen ikerketa-lana sustatzea.

Ekintzak:

Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten eta euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeetan, oinarritzko ikerketako eta ikerketa bikaineko (BERC) zentroetan, osasun-ikerketako institutuetan (IIS) eta ikerketa kooperatiboko zentroetan (CIC) lagundu nahi duten unibertsitate-ikasleentzako Ikasiker lankidetzak-bekak. Horretarako, laguntza eman nahi duten zentroarekin bateragarri izan behar dute ikasle horien ikasketek eta zentro horiek Eusko Jaurlaritzaren aitortza izan behar dute.

Adierazleak:

Beken kopurua: 184

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	330.000 €	360.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten eta unibertsitate-gradu ofizialeko titulazio batera bideratutako ikasketak-plan bateko azken bi kurtsoetako batean matrikulatuta dauden unibertsitate-ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULANGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Deustuko Unibertsitateari.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4223 Unibertsitate-Irakaskuntza

Helburuak:

Jarduera finalista jakin batzuk garatzea eta unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanak eta nazioartekotzea sustatzea Deustuko Unibertsitatean.

Ekintzak:

- Deustuko Unibertsitatearekin hitzartutako kontratu-programen bidez jarduera finalista batzuk finantzatzea.
- Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanak sustatzeko programak aurrera eramateko prozesua finantzatzea.
- Nazioartekotzea sustatzeko programen garapena finantzatzea.

Adierazleak:

Jardueren kopurua: 34

Aipamen duala duten titulazioen /ibilbideen kopurua: 4

Aipamen duala duten titulazioetan /ibilbideetan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua: 80

Nazioarteko akreditazioa duten titulazioen kopurua: 4

Nazioarteko akreditazioa duten titulazioetan matrikulatutako ikasleen kopurua: 1.341

Aurrekontu-konpromisoak

Kapitulua	2024
4	5.983.836 €
7	3.879.907 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Deustuko Unibertsitateko ikasleak, irakasleak eta pertsonala.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 2:

Dirulaguntza izenduna Mondragon Unibertsitateari.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4223 Unibertsitateko Irakaskuntza

Helburuak:

Jarduera finalista batzuk gauzatzea eta Mondragon Unibertsitatean unibertsitate eta enpresaren arteko harremanak eta nazioartekotzea sustatzea.

Ekintzak:

Mondragon Unibertsitatearekin hitzartutako kontratu-programen bidez zenbait jarduera finalista finantzatzea.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanak sustatzeko programak aurrera eramateko prozesua finantzatzea.

Nazioartekotzea sustatzeko programen garapena finantzatzea.

Adierazleak:

Jardueren kopurua: 40

Aipamen duala duten titulazioen /ibilbideen kopurua: 16

Aipamen duala duten titulazioetan/ibilbideetan matrikulatutako ikasleen kopurua: 320

Nazioarteko akreditazioa duten titulazioen kopurua: 6

Nazioarteko akreditazioa duten titulazioetan matrikulatutako ikasleen kopurua: 2.287

Compromisos presupuestarios:

Kapitulua	2024
4	5.167.829 €
7	2.687.148 €

Sector o sectores a los que se dirige:

Mondragon Unibertsitateko ikasleak, irakasleak eta langileak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 3:

Dirulaguntza izenduna Renoko Unibertsitateari, Euskal Ikasketen Zentroarekin lankidetzan aritzeko.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4223 Unibertsitateko Irakaskuntza

Helburuak:

Nevadako (Reno, AEB) Euskal Ikerketen zentroan euskal kultura eta euskal ikasketak hedatzea.

Ekintzak:

Nevadako (Renoko) Unibertsitateko Euskal Ikerketen zentroan euskal kultura eta euskal ikasketak hedatzeko jardueren finantzazioa.

Adierazleak:

Laguntza kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	60.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Nevadako (Reno, AEB) Unibertsitatea.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 4:

Dirulaguntza izenduna Deustuko Unibertsitateari.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Familia ugari eta gurasobakarrak, terrorismoaren biktimak, pertsona elbarrituak, genero-indarkeriaren biktimak eta asilo-eskatzaileak tasak eta administrazio-eskubideak ordaintzetik salbuesteko eta pertsona horiek tasa eta eskubide horiengatik gutxiago ordaintzeagatik Deustuko Unibertsitateari konpentsazioak ematea.

Ekintzak:

Deustuko Unibertsitatean matrikulatutako ikasleei aplikatzen zaizkien tasetatik eta administrazio-eskubideetatik salbuesteko prozesua finantzatzea.

Adierazleak:

Ikasle onuradunen kopurua: 1.165

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	428.100 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Tasa eta administrazio-eskubideen onuradun izateko Deustuko Unibertsitatearekin adostutako lankidetzak hitzarmenean ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 5:

Dirulaguntza izenduna Mondragon Unibertsitateari.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Familia ugari eta gurasobakarrak, terrorismoaren biktimak, pertsona elbarrituak, genero-indarkeriaren biktimak eta asilo-eskatzailleak tasa eta administrazio-eskubideak ordaintzetik salbuesteko eta pertsona horiek tasa eta administrazio-eskubide horiengatik gutxiago ordaintzeko Mondragon Unibertsitateari konpentsazioak ematea.

Ekintzak:

Tasak eta administrazio-eskubideak ez ordaintzeko Mondragon Unibertsitatean matrikulatutako ikasleei aplikatzen zaizkien salbuespenak finantzatzea.

Adierazleak:

Ikasle onuradunen kopurua: 423

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	182.400 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Tasa eta administrazio-eskubideen onuradun izateko Mondragon Unibertsitatearekin adostutako lankidetzaz hitzarmenean ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 6:

Dirulaguntza izenduna Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Goi Eskolari (TECNUN).

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Familia ugari eta gurasobakarrak, terrorismoaren biktimak, pertsona elbarrituak, genero-indarkeriaren biktimak eta asilo-eskatzaileak tasak eta administrazio-eskubideak ordaintzetik salbuesteko eta tasa eta administrazio-eskubide horientatik pertsona horiek gutxiago ordaintzeko Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Goi Eskolari (TECNUM) konpentsazioak ematea.

Ekintzak:

Tasa eta administrazio-eskubideak ez ordaintzeko Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Goi Eskolan (TECNUM) matrikulatutako ikasleei aplikatzen zaizkien salbuespenak finantzatzea.

Adierazleak:

Ikasle onuradunen kopurua: 195

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	74.500 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Tasa eta administrazio-eskubideen onuradun izateko Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Goi Eskolarekin (TECNUM) adostutako lankidetzak-hitzaimean ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**RDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 7:

Euskadiko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalako (UNED) ikastetxe elkartuei dirulaguntza izendunak ematea.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4223 Unibertsitateko Irakaskuntza

Helburuak:

UNEDek Gasteizen, Bergaran eta Portugaleten dituen ikastetxe elkartuetako kalitatezko irakaskuntza- eta ikerketa-jardueraren garapena sustatzea.

Ekintzak:

Gasteizen, Bergaran eta Portugaleten UNEDeko zentro elkartuak finantzatzea.

Adierazleak:

Erakunde onuradunen kopurua: 3

Atxikitako ikasleen kopurua: 5.777

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	500.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Urrutiko Hezkuntza Unibertsitateak (UNED) dituen zentro elkartuetan matrikulatutako ikasleak Euskadin.

Emateko prozedura:

Dirulaguntza izendunak.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 8:

Dirulaguntza izenduna Udako Ikastaroak Fundazioari.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4223 Unibertsitateko Irakaskuntza

Helburuak:

Udako ikastaroak- ezagutzetan sakontzera edota beraiek hedatzera bideratzen den prestakuntza-jarduera direnak- sustatzea, euskal gizarteak eztabaidatzeko eta pentsamendu kritikoa lantzeko topagune bat izan dezan, betiere aldatzen ari den gizarte batean gaudela eta ikastaro horiek gure gizarteari dakarkioten eragin sozial eta ekonomikoa kontuan hartuta.

Ekintzak:

Udako ikastaroak, eztabaidarako eta pentsamendu kritikorako topagunea diren aldetik, finantzatzea.

Adierazleak:

Finantzatutako ikastaroen kopurua: 14

Alumnado matriculado en los cursos financiados: 626

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	90.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Eztabaidatzeko eta pentsamendu kritikoa lantzeko elkarrekin topo egiteko espazio batera sartu nahi duten herritarrek.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 9:

Dirulaguntza izenduna Euskampus Fundazioari, adostutako jarduerak finantzatzeko.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4223 Unibertsitateko Irakaskuntza

Helburuak:

Euskadin goi hezkuntza, ikerketa, transferentzia, berrikuntza eta pertsonen, berorien ingurunearen eta garapen sozial zuzenago, iraunkorrako eta bidezkoago baten zerbitzuan egongo den ekonomia bat sustatzea.

Ekintzak:

Euskadin goi hezkuntza, ikerketa, transferentzia, berrikuntza eta pertsonen, berorien ingurunearen eta garapen sozial zuzenago, iraunkorrako eta bidezkoago baten zerbitzuan egongo den ekonomia bat hobetuko dituzten jarduerak finantzatzea.

Adierazleak:

Diruz lagundutako jarduerak: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	1.000.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Hezkuntza- eta ekoizpen-sektoreko eragileak eta, oro har, gizartea.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 10:

Dirulaguntza izenduna AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioari.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

5412 Ikerketa

Helburuak:

AIC Open University automozio-gela garatzea. Gela horrek lankidetzaren eta prestakuntza-proiektuak gauzatzen ditu unibertsitate-irakaskuntzaren eta ikerketaren eremuetan, 2022-2026rako Euskal II Unibertsitatea-Enpresa estrategiaren markoan.

Ekintzak:

AIC Open University automozio-gela aurrera eramateko prozesuari laguntza ematea.

Adierazleak:

Finantzatutako ekintzak: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	119.102 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Automozioaren sektorea.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildoak edo lerroa 11:

Dirulaguntza izenduna "Begoñako Andra Mari" Irakasleen Unibertsitate Eskolari.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4223 Unibertsitateko Irakaskuntza

Helburuak:

"Begoñako Andra Mari" Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleen kuotak gutxitzea.

Ekintzak:

Ikasleen kuotak gutxitzeko, "Begoñako Andra Mari" Irakasleen Unibertsitate Eskolari finantzazioa ematea.

Adierazleak:

Beren kuota finantzatzen duten ikasleen kopurua: 714

Finantzazio gehigarria lortzen duten ikasleen kopurua: 126

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	70.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Ikasketak "Begoñako Andra Maria" Irakasleen Unibertsitate Eskolan egiten dituzten unibertsitate-ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ILDOAK****Sailburuordetza:** Unibertsitate eta Ikerketa**Zuzendaritza:** Unibertsitate Politika eta Koordinazioa**Epea:** 2024**Helburu estrategikoa 2:**

Unibertsitate-erakundeei edo, erakunde izan gabe, unibertsitate-ingurunean lan egiten dutenei laguntzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 12:

Dirulaguntza izenduna Elgoibarko Makina Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskolari.

Organoa:

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza

Programa:

4223 Unibertsitateko Irakaskuntza

Helburuak:

Elgoibarko Makina Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskolaren jardura aurrera eramateko prozesuan lankidetzan aritzea. Haren hezkuntza-proiektua garatzeko prozesuari laguntza ematea eta gaurko eskaintza, unibertsitate-sistema espainolean behar bezala integratuz, finkatzeko aukera emango duen proiektuan parte hartzea. Halaber, haziko da Eskola eta txandakako prestakuntzaren eremuan estatu eta Europa mailan erreferentzia izango den eredu bat eraikiko da.

Ekintzak:

